

Sarrera

Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económica aldizkariko ale honean, 8. alean bezalatsu, Lurralde Antolamendu eta Kudeaketari buruzko Graduatuondoko Prestakuntza Programan parte hartu dutenen azken proiektuen sorta bat aurkezten da. Programa hori 1998-1999, 1999-2000 eta 2000-2001 ikasturteetan garatzen jarraitu du Eusko Ikaskuntzak, Euskal Herriko Unibertsitatearen hainbat Departamenturekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren babesarekin. Argitaratzeari begira, lan horiek behar bezala birmoldaturik ageri dira.

Lurraldearen Antolamendu eta Kudeaketaren alorreko adituak sortzen laguntzea da ikastaro horren helburua. Prestakuntza programa baten bidez, hainbat profesionalak (arkitektoak, hirigileak, soziologoak, ekonomistak, geografoak, ingeniariak...) beren jarduera planteatzen den lurralde esparruaren ikuspegi globala lortu ahal izango dute. Eremu esparru integratzaile hori, Lurraldearen Ordenamendua osatzen duena, bereziki egokia da administrazio eta lurralde maila desberdinetan (EB, Estatu kideak eta eskualde zein herrietako gobernuak) ezarritako sektore politiken koordinazioa segurtatzeko.

Hemen bilduriko proiektuak aukeratzekoan, lanen kalitateaz gainera, Lurralde Antolamendu eta Kudeaketak hartzen duen arazo eta estrategien ugaria agerian jartzea izan da irizpide nagusia, gaur egun arreta berezia biltzen duten gaiak eta ikuspegiak azpimarraturik geratzen direla.

Hala, azken bi hamarkadetan metropoli areek aldaketa garrantzitsua izan dute ekonomia, gizarte eta politika alorretan. Zenbait eskualdetan, bereziki antzinako industrializazio lurraldeetan, berrantolatze prozesu horrekin batera aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren: industria jarduerari dagozkionak, desinbertsioa, enpresa ixteak eta hainbat jarduera alde batera uztea, ingurumenaren degradazioa, langabezia masiboa eta pobrezia zein marjinalitatea handitzea. Berrantolatze ekonomikoaren dinamika, hala ere, ez da hiri eta lurraldeen egoeran eragina izan duen faktore bakarra; parte hartze publikoaren izaera bereziak eta hiriak eta eskualdeak berpizteko politikek ere zeregin erabakigarria izan dute. Suspertzeko estrategia horien adibideak aurki daitezke ondoko proiektuotan: *Renovación y regeneración urbana del entorno de la Bahía de Pasaia* eta *Regeneración integral de un espacio industrial* Gernika-Lumo udalerrian.

Bultzatu beharreko jarduera ekonomiko berriak kokatu ahal izateko, industria lurra horretara bideratzea da lurraldea suspertzeko estrategia hauetatik gehienetan ageri den elementu iraunkorra, dela zoru berria sortuz dela gutxiegi erabili edo bertan behera utzitako industria zoruak egokituz. Estrategien azterketa da proiektu honen helburua: *Las políticas públicas actuales de promoción de suelo industrial en el territorio histórico de Bizkaia*, euskal administrazioek, esku-menak laurogeiko urteetan bereganatu ondoren, egindako lana nabarmentzen duena, denboraz lurralde horretan bizi izandako industria krisialdi larrienarekin bat datorrena.

Lurralde eta hiri alorreko aldaketa garrantzitsuen testuinguru honetan, hiriei lurraldean dagokien eginkizuna berritzea eta, askotan, berriro zehazteko premia planteatu da neurri guztietako hirietan, tokikoaren eta globalaren arteko erlazio dinamikoa eratuz eta ingurunean lehiakortasuna sartzeko era berriak aurkitzen saiatuz. Xede horretan, hiri politikak eta hiri kudeaketaren baliabideak berriro zehaztu dira. Ildo horretatik, enklabe jakin batzuen hiri kalifikazioa aldatzeko prozesuak abian jartzea da behin eta berriro agertzen den estrategia, arkitektura elementu bereziak eraikitzea dakartenak eta hiri marketineko estrategia baten ardatz egituratzailearen egitekoa betetzen dutenak. Politika horren adibide bat da *Paseos marítimos urbanos. Propuesta de remodelación parcial del frente urbano de San Vicente de la Barquera* izenburuko proiektua.

Ingurumenaren arazoak eta lurralde zein sektoreko politikekin duten erlazioa dira gaur egun lurraldean egin beharreko parte hartze batek alde batera utzi ezin duen esparruetako bat, lehenik eta behin azpimarratu behar baita, lurraldeko ingurumen politika faktore berria bada ere, ingurumena geroz lehen-tasun handiagoko helburua izango dela eskualdeen eta lurraldeen arteko lehia. Zuzenki ingurumen arazoekin zerikusia duten lau lan bildu dira atal honetan. Ingurumen Zentro bat abian jartzeko proiektu bat, lehenik: *Arditurri-ko mina eremuaren antolaketa proposamena: ingurumen zentroaren sorkuntza proiektua*, Natur Parke horren babesa eta horren balioa nabarmentzen laguntzea helburu.

Bigarrenik, *Documento previo para una Agenda 21 local. Zona de Ereñozu (Hernani)* izenburukoa. Gaur, hiri ingurumena eta bizi kalitatea eta hiri zein herrietako bizigarritasuna hobetzen laguntzea helburu duten programa eta proiektu ugari dira, nazioarteko zein bertako hainbat erakundek diseinatuak izan-nik. Ildo horretatik, tokiko eskalan, ingurumen, gizarte eta ekonomia kudeatzeko baliabide indartsuenetako bat dugu Tokiko Agenda 21 izenekoa, Rio de Janeiro-ko Goi Bileran Agenda 21 Programaren atal gisa onartu zenetik duela hamar urte. Euskal Herrian ere gero eta hedatuagoa da garapen iraunkor, zuzen eta luzarokoaren inguruko kezka, eta horren erakusgarria da Hiri Iraunkorren Euro-pako Kanpainari atxikitzen ari zaion udal pila eta, ondorioz, Tokiko Agenda 21 eratzeko prozesuak abiatu dituztenak, Eusko Jaurlaritzaren “Ingurumeneko Esparru-Programa 2002-2020” izenekoaren barrenean gehienak.

Azkenik, berez beren ezaugarri abiotikoengatik balio handikoak diren espazio multzo bat aurkeztea da *Espacios de interés geomorfológico en Álava* lanaren

helburua. Izan ere, guztiz bakanki hartu da kontuan elementu hori, ez inguru-meneko beste hainbat osagaik bildu duten arretarekin behintzat, hala nola flora eta fauna (elementurik biotikoenak), zeinak kontuan hartu beharreko osagai gailentzat hartzen baitira, eskuarki, lurraldearen kontserbazio eta antolamendu politiketan.

Ikuspegi desberdinetik, baina zalantzarik gabe interes handikoa ere den *Espacio, historia, identidad: aproximación antropológica a determinados procesos de creación de patrimonio histórico-arqueológico en la comarca del Bajo Bidasoa* izenburuko lanak, Bidasoaren bokaleko bi aldeak banatzen zituen muga hori zabaltzean gertatzen ari bide den identitatea birformulatzeko prozesua aztertzen du; hori dela medio bi aldeen ibilbide historikoa batzeko bidean denez, talde moduan historian zehar erreferentziatzen hartzekoak diren uneak eta puntuak nabarmentzen dira. Espazioa (kasu honetan, mugaz gaindiko espazio berria), beraz, produktu kultural gisa agertzen da argi eta garbi.

Lurralde Antolamenduaren berezko ezaugarria, eta balio guztia dakarkiona, diziplina arteko izaera da. Ikuspegi horren adibide bat aurki daiteke *Declaración de ruina en Pamplona* azterlanean, non, kasuko azterketa baten bidez, agerian jartzen baitira erabaki bakarra hartzeko, garrantzi ekonomiko eta sozial handikoa, jokoan jarritako ikuspuntu tekniko eta profesional desberdinak.

Lurralde Antolamendu eta Kudeaketaren praktikak, eskuarki, hainbat lurralde eremutako planak lantzea eta onartzea dakartza, eta horiek hierarkiaren arabera loturik izan daitezke edo ez, baina, nolana ere, ezinbestean elkarloturik izan behar dute, zeren eta denek lurraldearen erabilera onena eta garapen hobea ezina duten helburu. *El crecimiento urbano y la ordenación del territorio en Álava* azterlanak Gasteizko ingurunea hartzen du kontuan lurralde planteamenduaren eta hirigintza planteamenduaren arteko desberdintasunak, ikusmolde, helburu eta interes desberdinak azaltzeko, bai eta erakunde desberdinen artean ager litezkeen arazoak nabarmentzeko ere, hautaturiko ereduaren arabera eta begiz jotako helburuen arabera.

Marisol Esteban Galarza
Lurralde Antolamendu eta Kudeaketa Ikastaroaren Zuzendaria

Introducción

Este número de la revista *Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas* recoge, de manera similar al número 8, una selección de los proyectos finales elaborados por los participantes en el Programa de Formación de Postgrado sobre Ordenación y Gestión del Territorio, que durante los cursos 1998-99, 1999-2000 y 2000-01 ha continuado desarrollando Eusko Ikaskuntza, en colaboración con distintos Departamentos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y con el apoyo del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, que han sido debidamente reelaborados para su publicación.

El objetivo de este curso es contribuir a la generación de especialistas en el ámbito de la Ordenación y Gestión del Territorio mediante un programa de formación que permita a distintos profesionales (arquitectos, urbanistas, sociólogos, economistas, geógrafos, ingenieros...) obtener una visión global del contexto territorial en el que plantean su actuación. Este marco espacial integrador, que constituye la Ordenación del Territorio, resulta especialmente adecuado para asegurar la coordinación de las políticas sectoriales establecidas en los distintos niveles administrativos y territoriales (UE, Estados miembros y gobiernos regionales y locales).

Un criterio clave para la selección de los proyectos aquí recogidos, además de la calidad de los mismos, ha sido poner de manifiesto la variedad de problemas y estrategias que la Ordenación y Gestión del Territorio abarca, poniendo énfasis en aquellas temáticas y enfoques que en estos momentos reciben una atención especial.

Así, durante las dos últimas décadas las áreas metropolitanas han sido objeto de una importante transformación económica, social y política. Para algunos territorios, especialmente, los situados en regiones de antigua industrialización, este proceso de reorganización se vio acompañado de cambios importantes en la actividad industrial, desinversión, cierre de empresas y actividades, degradación medio ambiental, desempleo masivo y aumento de la pobreza y de la marginalidad. La dinámica de reorganización económica, sin embargo, no ha sido el único factor que ha influido en la suerte de las ciudades y territorios; el carácter específico de la intervención pública y las políticas de revitalización urbana y regional han desempeñado, también, un papel decisivo. Ejemplos de estas estrategias revitalizadoras pueden encontrarse en los proyectos sobre *Renova-*

ción y regeneración urbana del entorno de la Bahía de Pasaia y Regeneración integral de un espacio industrial en el municipio de Gernika-Lumo.

Un elemento permanente en la mayoría de estas estrategias de revitalización territorial ha sido la provisión de suelo industrial para el asentamiento de las nuevas actividades económicas a promocionar, bien mediante la generación de nuevo suelo o bien mediante el reacondicionamiento de suelos industriales que han quedado infrautilizados o abandonados. El análisis de estas estrategias constituye el objeto del proyecto sobre *Las políticas públicas actuales de promoción de suelo industrial en el territorio histórico de Bizkaia*, que hace hincapié en la labor realizada por las administraciones vascas, una vez asumidas las competencias en los años ochenta, que coincidió con la época álgida de la crisis industrial vivida en este territorio.

Este contexto de importantes cambios territoriales y urbanos han planteado a las ciudades de todos los tamaños la necesidad de renovar y, muchas veces, redefinir su papel en el territorio mediante la construcción de una relación dinámica entre lo local y lo global, tratando de encontrar nuevas maneras de inserción competitiva en el entorno. Para ello, se ha producido una redefinición de las políticas urbanas y de los instrumentos de gestión urbana. Una estrategia recurrente ha sido la puesta en marcha de procesos de recualificación urbanística de enclaves concretos, acompañados de la construcción de elementos arquitectónicos singulares, que actúan como eje vertebrador de una estrategia de marketing urbano. Un ejemplo de esta política puede encontrarse en el proyecto *Paseos marítimos urbanos. Propuesta de remodelación parcial del frente urbano de San Vicente de la Barquera*.

Otro de los ámbitos que hoy en día no puede dejar de abordar cualquier intervención en el territorio es la problemática del medio ambiente y su relación con la políticas territoriales y sectoriales, porque lo primero que hay que subrayar es que aunque la política medioambiental territorial constituye un elemento de reciente factura, sin embargo, el medio ambiente devendrá un objetivo cada vez más prioritario en la lucha competitiva entre las regiones y territorios. Se recogen en esta selección cuatro trabajos que tienen que ver directamente con las cuestiones medioambientales. En primer lugar, un proyecto para la puesta en marcha de un Centro Medioambiental *Arditurriko mina eremuaren antolaketa proposamena: ingurumen zentroaren sorkuntza proiektua*, que tiene como objetivo colaborar en la protección y puesta en valor de este Parque Natural.

En segundo lugar, el *Documento previo para una Agenda 21 local. Zona de Ereñozu (Hernani)*. Actualmente, existen numerosos programas y proyectos, que representan los esfuerzos de diversos organismos internacionales y nacionales, con el objetivo de contribuir a la mejora del medio ambiente urbano y de la calidad de vida y habitabilidad de los pueblos y ciudades. En esta dirección, la Agenda 21 local se presenta como uno de los más potentes instrumentos de gestión ambiental, social y económica a escala local, desde que hace diez años se aprobó en la Cumbre de Río de Janeiro, como un capítulo del Programa de Agenda 21. En el País Vasco también se está propagando la preocupación por un desa-

rollo sostenible, justo y perdurable y muestra de ello, es que multitud de ayuntamientos se están sumando a la Campaña Europea de Ciudades Sostenibles y, consecuentemente, han iniciado procesos de elaboración de Agendas Locales 21, generalmente en el marco del programa para la sostenibilidad del Gobierno Vasco “Programa Marco Ambiental 2002-2020”.

Por último, el trabajo *Espacios de interés geomorfológico en Álava* tiene como objetivo presentar un conjunto de espacios de elevados valor intrínseco por sus características abióticas, elemento rara vez contemplado, al menos con la misma ponderación que otros integrantes de medio ambiente (por ejemplo, la flora y la fauna, elementos bióticos por excelencia), que normalmente sí son considerados como elementos relevantes a tener en cuenta en las políticas de conservación y ordenación del territorio.

Desde una perspectiva distinta, pero también de indudable interés, el proyecto sobre *Espacio, historia, identidad: aproximación antropológica a determinados procesos de creación de patrimonio histórico-arqueológico en la comarca del Bajo Bidasoa* aborda el proceso de reformulación identitaria que parece estar produciéndose tras la apertura de la frontera que separaba las dos márgenes de la desembocadura del río Bidasoa, por el cual la trayectoria histórica de ambas márgenes va a ser unificada, enfatizándose jalones y puntos en el devenir histórico a los que referirse como grupo. El espacio (en este caso, el nuevo espacio transfronterizo) aparece, pues, de manera clara como un producto cultural.

Una característica intrínseca a la Ordenación del Territorio, que le aporta todo su valor, es su carácter interdisciplinario. Un ejemplo de este enfoque puede encontrarse en el trabajo *Declaración de ruina en Pamplona*, en el que a través de un estudio de caso, se ponen de manifiesto las distintas perspectivas técnicas y profesionales que se ponen en juego para producir una decisión única, de indudable trascendencia económica y social.

La práctica de la Ordenación y Gestión del Territorio conlleva, normalmente, la elaboración y aprobación de planes, de distinto ámbito territorial que pueden, o no, estar jerárquicamente vinculados, pero que, en todo caso, van a estar necesariamente interrelacionados, porque todos ellos pretenden el mejor uso del territorio y el desarrollo óptimo del mismo. El estudio sobre *El crecimiento urbano y la ordenación del territorio en Álava* aborda las diferencias existentes entre el planeamiento territorial y el planeamiento urbanístico en el entorno de Vitoria, sus diferentes concepciones, objetivos e intereses, y pone de manifiesto los potenciales problemas que pueden aparecer entre diferentes instituciones, según el modelo de planificación por el que opten y los objetivos que se marquen.

Marisol Esteban Galarza
Directora del Curso Ordenación y Gestión del Territorio